

ehbildu

Zeberio

EHBZ INFOa
2025eko martxoa

Berriztagarriak bai, baina ordenaturik

**Renovables si,
pero con orden**

Accede al
contenido de
esta revista en
castellano:



EH Bildu, gorantz doan indarra

EH Bildu sigue en constante crecimiento, y se ha consolidado como una fuerza clave en toda Euskal Herria. Está construyendo la más elaborada red de activistas de toda Euskal Herria, colaborando en los diversos proyectos populares que van surgiendo en cada pueblo o barrio. Además, electoralmente mantiene avances significativos en Iparralde, Nafarroa y la CAV, destacando especialmente en Bizkaia, donde ha logrado disputarle la hegemonía al PNV. En Zeberio, tras años de alternancia, EH Bildu ha logrado imponerse en las últimas tres citas electorales.

Euskal Herriko ezkerre eta abertzaleen batu gura zituen proiektu historikoa erreferente bat izan da gure artean azken 60 urteetan. Fase desberdinak edukita ere, nabaria izan da bere ekarpena maila ideologikoan, politikoan, sozio-ekonomikoan eta kulturean: zapalketa mota guztiak salatzea, euskararen ikasketa eta erabilera bultzatzea, zazpi herrialdeen batasuna irudikatzea, estatu burujabearen alde etengabe jotzea, eta abar.

Proiektu bizia eta partekatua izan da urteetan zehar: zer herritan ez dugu ezagutzen talde edo militanteren bat horren alde ari dena? Zer mugimendu sozial dago gure militanterik ez daukana? Eta horri hauteskundeetan jaso duen bultzada

gaineratu behar zaio: zenbat alkate eta zinegotzi gure proiektua aurrera erroten! Gure herri proiektua instituzioetara ere errotu dugu eta.

Proiektu arrakastatsutzat jo behar da gurea: milaka kide lanean, eta milaka jarraitzaile hauteskundeetan. Izan ere, azken urteotan EH Bildu etengabe gorantz doan indarra da. Marko eta herri guztietan, ikusiko dugunez.

Ipar Euskal Herrian Euskal Herria Bai da gure marka. Historikoki indar gutxikoa izan da hauteskundeetan, baina azken urteotan 3. indar politikoa izatera heldu da (botoen % 8 lortu zuen 2007an, eta % 13 2022an), eta zinegotziez gain, alkateak ere lortu ditu, lehenengoz.




Nafarroan ikusgarria da EH Bilduren aurrerakada. Hirugarren indarra da Parlamentuan, eta gobernua eusten du; baina horrez gain, zinegotzi gehien duen indarra da, 341, eta besteak beste, Iruñeko alkatea EH Bildurena da.

EAEn igertzen da gehien EH Bilduren gorantzako joera. Datu modura, 2024ko Europako Hauteskundeetan lehen indarra izan zen: 4 bototik bat guretzat izan zen (% 26,2); Eusko Legebiltzarrean bigarrena da, lehenarekin berdinduta; eta zinegotzi gehien daukan indarra da: 1050.

Bizkaian handia izan da EAJren indarra azken hamarkadetan, baina EH Bildu lehiakide nagusi bihurtu da. Are gehiago, Europako azken hauteskundeetan, 2024an, aurretik geratu zen. Bigarrena izan zen EAEko eta udal hauteskundeetan, baina gorantz eginda bietan, EAJk beherantz egiten zuen bitartean.



Eta Zeberion? Bizkaian badira udal batzuk aspaldi EAJri aurrea hartu ziotenak (gero eta gehiago). Gure kasuan 2011n lehenengoz irabazi zion EH Bilduk EAJri (udalerako hauteskundeak), baina berriro ez zuen irabazi, hurbil egonda ere. Joera hori beste udal hauteskunde batzuetan apurtu zen, 2023an. Ordutik hiru bider gailendu zaio EH Bildu EAJri: Espainiako hauteskundeetan (292/277); EAEkoetan (316/286); eta Europakoetan (249/200). Grafikoan azken hamar urteetan lehiatu diren 17 aldiak ikusi daitezke.



“todos tenemos un montón de contradicciones, pero para mí es fundamental no fallarle a la gente, no mentirle a la gente. Tú te puedes equivocar, pero la gente tiene que percibir que tú tienes la honestidad suficiente como para aceptarlo. Creo que la honestidad es lo que ha construido movimiento en este país. El futuro de EH Bildu será brillante si tiene conexión popular y si mantiene principios y valores.”

- Arnaldo Otegi -

Berriztagarriak:



oraindik ordena jar daiteke (eta jarri behar da)

EH Bildu planteo una estrategia energética para Hego Euskal Herria basada en la descarbonización total y una planificación democrática y sostenible. Denuncia la proliferación descontrolada de proyectos especulativos de energías renovables y apuesta por un modelo basado en la participación ciudadana, la eficiencia energética y la protección del territorio, considerando la transición energética como una oportunidad para una sociedad más justa y solidaria.

Energia-proiektuak gure lurraldean agertzen hasi ziren, tantaka, hasieran, eta uholde bihurtuta, gerora. Urteotako kudeaketa txarrak edo kudeaketa faltak herritarrengan ezinegona, ziurgabetasuna eta kezka sortu baino ez dute egin.

Gobernuek hamarkadetan izan duten ikusmen-gabezia eta aurrea hartzeko gaitasun faltan; edo eztabaida eta obsesio antzuetan galdutako urteetan, hala nola fracking-ean; edo Eusko Jaurlaritzak berak bultzatutako energia-proiektuetan, ingurumenean duten eraginagatik baztertu behar izan ziren horietan. Zentzugabekeriaren zerrenda handia da, baina, azken finean, iraganak ezin gaitu baldintzatu: klima-aldaketa hemen dago, eta aurrera egin behar dugu.

EH Bilduk **Hego Euskal Herrirako Energia Estrategia** baten proposamena plazaratu eta helarazi zien lurraldeko eragile nagusiei. Dokumentu horrek ibilbide-orri bat planteatzen du lurraldearen trantsizio ekosozialean aurrera egiteko, gure lurraldearen erabateko deskarbonizazioa lortu arte. 2030erako nahi den eszenatokia zehatz-mehatz definitzen duen proposamena.

<https://labur.eus/energia-estrategia>



Elkarrizketa zintzo bati ekiteko eskaintza, mahai gainean dagoen plan partekatu bat adostera eramango gaituena.

Bien bitartean, egia esan, gero eta agerikoagoa den larrialdi klimatiko baten aurrean gaude, eta, aldi berean, berriztagarriak nonahi hedatzen ari dira plangintza egokirik gabe, helbururik gabe eta ibilbide-orri eguneraturik gabe. Dozenaka proiektu administrazio-izapidean daude. Proiektu horietan, sustatzaileen irabazi-asmoak eta merkatu-logikak nagusitzen dira gehienbat. Indefentsioaren eta ziurgabetasunaren sentsazioa hedatzen da, jakina, herritar gehienek artean. Batez ere kaltetutako eremuetan, eta ez dezagun ahaztu dagoeneko ia lurralde osoa dela hori. Jende askok bere buruari galdetzen dio zein interesen arabera definitzen diren proiektuak eta zenbat lurralde erabiliko dugun berriztagarriak hedatzeko. Eta, gaur-gaurkoz, erakundeek ez dute ez konfiantzarik ez erantzun sinesgarriarik eskaintzen.

Puntu honetara iritsita, ezinbestekoa da ordena jartzea behingoz. Ezinbestekoa da agertokia proiektu espekulatibo eta neurrigabeez garbitzea, herritarrengan zalantza eta mesfidantza besterik sortzen ez dutenak. Eta desagertu egin behar dira, halaber, modu oportunistan bultzatutako beste proiektu asko, izapidetuekin edo lurrak eskuratzearekin espekulatuz etekinak lortzeko helburu bakarra dutenak.

Aldi berean, ezinbestekoa da herritarrei konfiantza eta ziurtasunak ematea, eta klima-aldaketaren aurkako borrokan eta energia berriztagarrietarako trantsizio-prozesuan parte hartzea eta protagonista izatea. Norbaitek uste badu posible dela trantsizio energetikoaren neurriko prozesu bat herritarren parte-hartzerik eta konplizitatez gabe egitea, oker dabil. Trantsizio energetikoa jendearen eskutik egin behar da, tokiko komunitateen iritzia arreta berezia eskainiz, lurraldeari buruz duten ezagutzagatik. Horretarako, funtsezkoa izango da plangintza publiko eta demokratikoa egitea, eta ahalik eta lasterren, lurraldean berriztagarriak nola hedatu adostera eramango gaituzten herri-prozesuak abiaraztea.



Argi eta garbi definitu behar ditugu 2030erako bete daitezkeen helburuak, ahalik eta modu partekatuenean. Helburu horiek interes orokorra, klima-aldaketaren aurkako borroka aldeko konpromisoa eta

energia-ekoizpen eta kontsumo hurbilagora, justuagora eta demokratikoagora igarotzeko borondatea lehenetsiko dituzte, merkatu-logikaren gainetik. Helburu horiek energia aurrezpena eta efizientzia kontuan hartuko dituzte, autokontsumoa eta sorkuntza banatua erabakitasunez bultzatuko dituzte eta eskala handiagoko proiektuen hedapen arrazionala eta orekatua bilatuko dute. Hedapen hori ingurumen-balio handiko espazioak eta balio estrategiko handiko nekazaritza-lurrak zorrotz babestuz egin behar da, trantsizio energetikoa beste bi eremu strategikorekin bateragarri eginez, hala nola biodibertsitatea zaintzea eta lehen sektorea bultzatzea.



EH Bilduren ustez, aldaketa klimatikoaren aurkako borroka eta trantsizio energetikoa aukera gisa hartu behar da, gizarte justuago eta solidarioago baten eraikuntzan aurrera egiteko. Subiranotasun energetikoa bezalako gai estrategiko batean herri gisa aurrera egiteko eta planetaren muga biofisikoen barruan kokatuko den ehun sozioekonomikoa lortzeko aukera bat. Azken batean, aukera hori ez dugu galdu behar, ezin dugu pasatzen utzi. Norabide horretan lan egin du, lan egiten du eta lanean jarraituko du EH Bilduk.

San Antolin eta San Antonio ermitak inmatrikulatuak

El Ayuntamiento de Zeberio consiguió recuperar un bien de titularidad pública (ermitas de San Antolín y San Roque de Zubialde y San Antonio de Ermitabarri) tras confirmar en documentación histórica que su construcción fue financiada con fondos públicos. El Obispado de Bizkaia reconoció su titularidad pública tras revisar sus archivos, y en la legislatura 2011-2015 se completó su catalogación como patrimonio municipal.

Jende askok galdetzen digu Zeberioko Udalak zein prozedura erabili zuen bere esku inskribatzeko Zubialdeko San Antolin eta San Roke ermita, eta Ermitabarriko Elezbasoko San Antonio ermita. Gauza da dokumentazio historikoan aurkitu izan direla Udalak berak bataren eta bestearen eraikuntzan ordainketa publikoa burutu zuela. Bizkaiko Gotzaitegiak artxiboetan bere peskisak egin ondoren, onartu zuen aipatu bi ondasun horiek herriarenak zirela, eta ondorioz, 2011-15 legegintzaldian Zeberioko Udalak bere izenean inmatrikulatu zituen, hau da, Zeberioko Udalaren ondare publikoaren katalogazioan zerrendatzea.

Orduko zenbait datu gaurkotu nahiean, bi aipamen besterik ez dugu ekarriko. Bata da, Zubialdeko San Antolin ermitaz artxiboan gordea dagoen expedientearen erreferentzia, jarraian idatzita dagoena, eta edonork Bizkaiko Foru Aldundiko Agiritegi Historikoan kontsultatzeko eskubidea duena. Eta bestea da, aspaldiko argazki bitxia, egungo eraikinarekin konpara dezakeguna.

San Antolin eta San Antonio ermitak inmatrikulatuak	
Pieza de los autos que litiga la anteiglesia de Olavarrieta con la parcialidad patrona del valle de Ceberio y ...	
Sección:	JUDICIAL
Fondo:	CORREGIDOR
Subfondo:	CIVIL
Signatura:	JCR1303/005
Fecha:	1792-01-05 / 1795-10-19
Folios:	0199
Resumen:	Pieza de los autos que litiga la anteiglesia de Olavarrieta con la parcialidad patrona del valle de Ceberio y avecedados a la villa de Muxvalles, sobre el nombramiento de hospitalero, ministro, alcalde y otros oficiales del hospital de la ermita de "San Roque y San Antolín" de dicha anteiglesia. En esta pieza se dan las probanzas presentadas por ambas partes.
Incluye:	Declaración de testigos. Escritura de sustitución del poder dado por la parte patrona del valle de Ceberio otorgada por Pedro de Idón, como Fiel Síndico del mismo, en favor de Pedro Docto de Ibarreta, vecino de dicho valle, en él, el seis de diciembre de 1791, ante Domingo de Soparda. Compulsa de ciertas partidas de los libros de cuentas de las parcialidades patrona e infanzona del valle de Ceberio de 1704 1706, 1716, 1723, 1726 a 1727, 1729 a 1730, 1736, 1739, 1746, 1758, 1766 y 1767, 1769, 1773 a 1779, 1781, 1785, 1787 a 1789 y 1791. Traslado de los autos de visita a la capilla o ermita del hospital del valle de Ceberio, en Sanruola, en 1627, ante el provisor y vicario del Obispado de Calahorra y La Calzada. Encabezados y pies de las cuentas presentadas por los mayordomos del hospital de Ceberio en 1629, 1630, 1656 y 1677. Encabezados, capitulos y pies de las diligencias de elecciones de las parcialidades patrona e infanzona del valle de Ceberio de 1599, 1701, 1727, 1742, 1743, 1753 y 1758. Escritura de nombramiento de hospitalero del valle de Ceberio otorgada por el Cabildo y beneficiados de la iglesia de Santo Tomás de la anteiglesia de Olavarrieta en favor de Juan de Rotalde, en dicha anteiglesia, el veintiocho de agosto de 1639, ante Juan de Guzala. Escritura de entrega del inventario y cuentas de los bienes pertenecientes al hospital de la ermita de San Roque y San Antolín de la anteiglesia de Olavarrieta otorgada de Pedro de Arceaga, vecino de ella, como anterior mayordomo del citado hospital, en favor de Pedro y José de Eichabania Amesari, sus convecinos, como principal y fudor respectivamente, en dicha anteiglesia, el once de abril de 1791, ante Miguel Antonio de Perera. Compulsa de las cuentas presentadas por los mayordomos del hospital de la anteiglesia de Olavarrieta en 1778, 1782 y 1786. Traslado de los autos de inventario, apeo y amojonamiento de los bienes pertenecientes al hospital del valle de Ceberio promovidos por Francisco de Ilarondo, presbítero beneficiado de la iglesia de Santo Tomás de Olavarrieta, por sí y en nombre del Cabildo de ella, en dicho valle, en 1677, ante el juez de comisión.

Zeberioko San Antolin eta San Roke ermita. 1930, in: YBARRA BERGUE J. (1958): *Catálogo de monumentos de Vizcaya*. Junta de Cultura de Vizcaya. Bilbao. 2. Ed., 1103 irudia. Eskuzko aldian, seruzian, jaregi baxerian.




Zeberioiko San Antolin eta San Roke ermita. 1930i, in: YBARRA BERGE J. (1958):
Catálogo de monumentos de Vizcaya.

Junta de Cultura de Vizcaya. Bilbao. 2. lib., 1103 irudia.

Eskuma aldean, urrunean, Jauregi baserria.

Eta Ermitabarriko San Antonio ermitari buruz esan, jarraian, San Antonio ermita eraiki zuen
Tomas Ipiña Aldekoa hargin defuntuaren Maria Usaola alargunari ordaintzen zaiola senarrak
egindako lanen salneurria. Hau da egungo faktura lez ezagutzen dena:



“Sepase como nos, Pedro de Yarza y Antonio de Oze-/rin Sautu, Fieles Regidores vecinos de este Valle de Ze-/berio y Anteiglesia de Olabarrieta, decimos que en Ayun-/tamiento público celebrado con la forma acostum-/brada por los vecinos de dicho Valle y Anteiglesia, en dicho Ayunta-/miento se nos está dada orden verbalmente por/ dichos vecinos para que como tales Fieles de dicho Valle y An-/teiglesia, en su nombre y demás vecinos/ demos carta de/ pago y recibo y deliberación a Maria de Usaola viu-/da vecina de dicho Valle y mujer legítima de Tomás/ de Ypiña Ereñosa, vecino que fue del mismo Valle/ y maestro cantero constructor y fabricante de la/ ermita nueva de San Antonio de Padua de/ dicho Valle, su losadura y empedradura de su cimiterio...” (ZUA, 45. Carpeta, Pedro Rio Barañano eskribaua, 177 fol.)

Etxebizitza ez da jolasa!

La vivienda se ha convertido en una emergencia social en Hego Euskal Herria debido al aumento de precios, la falta de políticas públicas efectivas y la especulación. EH Bildu propone una nueva dinámica, que combinará la movilización social y diversas propuestas institucionales. Se pretende informar y concienciar sobre esta problemática, y plantear soluciones reales. Comenzamos el 16 de marzo con una acción simbólica en Donostia.

Hego Euskal Herrian etxebizitza arazo larria daukagu. Ez da arazo berria, eta bai aurreko urteotako joeren edo erabakien ondorio: alokairuen eta etxebizitza-erosketen prezioak izugarri igon dira (baina soldatak ez maila berean), etxebizitza turistikoen gorakada gelditu ezina da, gentrifikazioa nagusitu da, eta etxebizitza publikoen politika sendoa falta da. Etxebizitza, bestalde, ez da soilik gazteek edo kolektibo zaurgarrien arazoa; gizarte osoari eragiten dio, aitzitik, zuzenean edo zeharka. Izan ere, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herritarrentzat etxebizitza osasunaren pareko kezka bilakatu da.

EH Bildutik gaiari heldu gura diogu, eta etxebizitzaren arazoari aurre egiteko alternatiba erreal eta egingarriak aurkeztu gura ditugu. Horretarako, dinamika integral bat jarriko dugu martxan, uda hasierara arte luzatuko dena eta herri zein auzoetan garatuko dena. Ez da aldi baterako kanpaina hutsa izango, baizik eta sakon jorratu beharreko problematika bati erantzuteko urratsa.

Kalean mobilizazioak bultzatuko ditugu, eta horrekin batera, erakundeetan proposamenak aurkeztuko ditugu. Hau da, salaketa eta irtenbideak uztartuko ditugu. Kaleko ekimenak herritarren kontzientzia pizteko, etxebizitza eskubide gisa aldarrikatuz, eta etxebizitzaren espekulazioarekin amaitzeko beharra azpimarratuz. Eta aldi berean, erakunde publikoetan proposamenak

planteatuko dira, etxebizitza politika publiko eraginkorrak garatzeko helburuarekin.



Dinamika nazionala izango da, eskualde, herri eta auzo mailan garatuko diren ekimenak bilduko dituena. Komunikazioa errazteko, eta gaian interesa pizteko, "Etxebizitza ez da jolasa!" leloa eta Monopoly jokoan oinarritutako diseinua erabiliko dugu, era horretara herritarrak arazoaren larritasunaz hobeto jabetzeko. Gauzak modu antolatuan egiteko, laster egutegi bat azalduko da, eta bertan jasoko dira proposatuko diren ekimenak, baita erakundeetan aurkeztuko diren proposamen zehatzak ere.

Dinamikari hasiera emateko, martxoaren 16an Donostian "performance" bat egin da, Monopoly jokoan oinarrituta. Ekimena dinamika nazionalaren abiapuntu sinbolikoa izan da.

Herri Ekimen Legegilea, gutxieneko pentsioa (830 euro) gutxieneko soldatarekin parekatzeko (1.184 euro).



El Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH) ha impulsado una Iniciativa Legislativa Popular para equiparar la pensión mínima (830 €) con el salario mínimo interprofesional (1.184 €). Se busca con ello garantizar unos ingresos dignos en la vejez, además de corregir desigualdades históricas, especialmente en el caso de las mujeres, cuyas pensiones son un 37% inferiores. El movimiento de pensionistas llama a la ciudadanía a firmar en apoyo a esta propuesta, que será debatida y votada en el Parlamento Vasco.

Euskal Herriko Pentsionisten Mugimenduak (MPEH) Herri Ekimen Legegilea aurkeztu du, EAEko Parlamentuan tramitera onartua, eta sinadurak biltzeko prozesuan, Legebiltzarrean eztabaidatu eta bozkatu ahal izateko.

MPEHk oinarritzko eztabaida soziala sortzen lagundu nahi du, gizarte justuagoa eta solidarioagoa eraikitzen, aberastasunaren banaketa ekitatiboan eta huraosatzen duten pertsona guztien aukera-berdintasunean oinarritua.

Milaka pentsiodunek uste dute bidegabekeria itzela dela, lan-bizitza oso baten amaieran, gutxieneko diru-sarrera nahikorik ez izatea. Gaur egun, EAEn 160.000 pentsiodunek 1.100 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte.

Aipatutako ILPren helburua, beraz, Pentsio Osagarrien Euskal Sistema bat arautzea da, pentsiodun bakoitzari zahartzaroan duintasunez bizitzeko diru-sarrera nahikoak bermatzeko. Osagarri horrek gutxieneko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzea eskatzen dute.



Era berean, osagarri horren bidez, lantokietan diskriminatutako eta prekarizatutako emakumeen aurkako bidegabekeria historikoa ere konpondu nahi da, izan ere, zainketa-lanetan ez aitortu ez ordaindu ez diren orduak direla eta, emakumeen pentsioak gizonenak baino % 37 txikiagoak baitira.

EH Bilduk bere babesa erakutsi du Legebiltzarrean eztabaidatu eta bozkatua izan dadin, eta, ahal den neurrian, bai erakunde eta bai politika arlotik herritarren parte-hartzea sustatzen dugu, ekintza politiko eta legegilean.


Herriko lagun guztiak gonbidatzen ditugu udaletxean eskura dituen ILP honi babesa emateko pleguak sinatzera.

Politika eraldatzaileak hausnartuz: Jardunaldi munizipalista

El 22 de marzo se ha celebrado en Azpeitia la III Conferencia Municipalista de EH Bildu, un foro y ocasión excelente para hablar sobre nuestra actividad popular y municipal: nuevos tipos de gobernanza, políticas públicas populares, etc. No acudieron únicamente concejales, sino que pudieron participar otras y otros bilkides interesados/as en estos temas.



Jardunaldi Munizipalistak
Martxoak 22
Azpeitia - Angelu



Martxoaren 22an gure hirugarren Jardunaldi Munizipalista egin dugu, Azpeitian, udalgintzari eta herrigintzari bultzada berria emateko gune estrategikoa. 2011tik izan duen ibilbide munizipalista sakonduz, oraingoan Kongresuaren ondorengo erronkak aztertu ditugu, bereziki gobernantza eredu berritzaileak eta politika publiko eraldatzaileak indartuz.

Hitzordu honek hiru helburu nagusi izan ditu:

1- Udalgintza nazio ikuspegian kokatzea. EH Bilduk mugimendu munizipalista nazionala sendotu nahi du, estatus politikoaren eztabaidan eta lurralde artikulazioan bere ekarpena eginez.

2- Gobernantza kooperatiboan jauzia egitea. Herritarrek inpartekatutako botere eredu indartu nahi da, eta udalek eragiteko duten gaitasuna handitu.

3- Hiriguneetan arreta berezia jartzea. Euskal hirien beharrei erantzunez, 2027ko hauteskundeetarako proposamen sendoak lantzen hastea.

Halaber, udalerrietan politika eraldatzaileak sustatzeko gune espezifikoak egon dira, hainbat arlotan sakontzeko: etxebizitza, zaintza, euskararen sustapena, trantsizio ekosoziala eta gobernantzaren berrikuntza.

EH Bilduren Jardunaldi Munizipalista ez da zinegotzientzat bakarrik antolatzen den foroa. Askoz helburu anbiziotsuagoa dauka, ordea: herriz herri eraldaketa soziala bultzatzeko tresna da, eta bertan parte hartzen duten udalgintzaren etorkizuna marrazteko aukera izan dute. 2025eko martxoaren 22an egin den hitzordu honek Euskal Herriko politika lokalean jauzi berri bat egiteko oinarriak ezarri ditu.

Euskal Herria: Harrera herria



Euskal Herria es una sociedad plural si nos fijamos en el origen de sus habitantes y cada vez lo será más. EH Bildu tiene una premisa que guía su trabajo: todas las personas que viven aquí son vascas y por lo tanto tienen los mismos derechos y deberes. No compartimos la desconfianza hacia quien es diferente. Queremos que sean compañeras de nuestro viaje hacia una sociedad más igualitaria.



Immigrazioa errealitate gero eta nabarmenagoa da. Milaka dira bizitza duina lortzeko ahaleginetan gure artera heltzen direnak. Euskal Herria gizarte plurala da bertako herritarron jatorriari begiratzen badiogu. Zeberio bera, herri txikia izanda, horren adibide da. Ez gara salbuespen bat, esan gabe doa. XX. mendearen erdialdetik aurrera immigrante gehienak Espainiako herrietatik batez ere etortzen ziren. Mende honen hasieratik aurrera, berriz, etorkinen jatorria planetako herrialde urrun eta pobreenetatik heltzen dira, eta, sarritan, oso egoera kaxkarrean.

Etorkinen problematika anitza da,

dituzten gabeziak kontuan hartuta: egoera administratibo irregularra, hots, “paperik gabekoak” izatea; langabezia, etxebizitza... Arazo hauetako batzuk bertoko jendeak ere baditu, baina, etorkinen kasuan, areagotu egiten dira. Gizartean hazten ari den “diferentearekiko mesfidantza” edo xenofobia dela eta. Immigranteok eduki ditzaketen desberdintasun kulturalak (hizkuntza, erlijioa, ohiturak, janzkera...) zaildu egiten dute gutxieneko normaltasun batez gure artean onartuak izatea. Hori itzelezko erronka da munduari ikusmolde ezkertiarrekin begiratzen diogunontzat. Ez gara konformatzen gizartean integratzeaz, gure bidaide izan daitezela nahi dugu. Asko hausnartu beharra daukagu gai honen inguruan, baina EH Bilduk argi eta garbi adierazten du Euskal Herrian bizi diren pertsona guztiak euskal herritarrak direla. Horrek esan nahi du edozein herritarrek dituen betebeharrak eta eskubide berberak izan behar dituztela immigranteek. Harrera herria izan gara eta izaten jarraitu nahi dugu.





Zeberioak medikua behar du

Lehen arreta ITOLARRIAN!

Atención primaria SOS

KONTZENTRAZIOA
urtarrilaren 11an, eguna. 18:00etan
jueves 11 de enero, 18:00h
Udaletxe aurrean

ehbildu



Solidarioa

ZEBERIOKO AZARO FEMINISTA

AZAROAK 22
18.30 "VOLAR" DOKUMENTALA.
Ondoren, protagonistekin solasekaldia.
(Jendakizuko bigarren solasekaldia gertatzen)

AZAROAK 24
19.30 ETZANDERAK DANTZA IKUSKIZUNA
(Frontoan)

AZAROAK 28
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN
AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA
13.00 ELKARRETARATZEA UDALETXE
AURREAN

Kontzentrazioa ZEBERION 19:00etan

GENOZIDIOA Urriak 27 Oñateko mobilizazio gaitzen.

STOP!



¡ALTO EL FUEGO YA!

BAIEA-KUTZIA-ITZAROPENA

AZAROA FEMINISTA

AZAROAK 21, Eguena
17.00etan, hogarreen, haurren eta kontakizun Interakzioa.

AZAROAK 25, Astelehena
13.00etan, solasekaldia, elkarratzatzea

AZAROAK 26, Martitzena
17.30etan, Hogarreen, Familia biko genero rola: Taller interaktiboa.

AZAROAK 28, Eguena
18.00etan, Oñateko. Hurrengo taldea: genero indarkeria erasoak

AZAROAK 29, Barikua
18.30gar. Hogarreen. La Tija y la mona antzerkia

Zeberioi medikua behar du
Lehen arreta Atención primaria
ITOLARRIAN! SOS

KONTZENTRAZIOA
abuztuaren 8an, martitzena, 19:30etan
martes 8 de agosto, 19:30h
Udaletxe aurrean

ehbildu



k gara!

SOS RAFAH

MAIATZAK 11 - 12:30
HERI ETA HIRIETAKO
UDALETXE AURREAN



GERRIKA PALESTINA DEVALDI HERRITARRA

Elkarlaguntza sare historikoak Zeberion

Históricamente, en Zeberio se han desarrollado diversas formas de cooperación entre baserritarras, como el auzolan (prestación vecinal), la lorra (ayuda mutua en caso de necesidad) y el ordea (intercambio de trabajo). Históricamente han surgido asociaciones como hermandades ganaderas, cooperativas y grupos de ayuda mutua ante incendios de caseríos o gastos funerarios, reflejando una fuerte tradición de solidaridad local.

Historikoki, Euskal Herriko landa-inguruneke herri eta auzoetan, baserritarrek elkarren arteko laguntza eratzeke eta bultzatzeko era ezberdinetako asoziazio motak sortu izan dituzte, eta horietako askok, gutxi-asko ia oraintsu arte gure artean bizirik egon izan dira. Komunitatearen harreman horien bidez, hainbat gizarte-praktika, ekimen, erakunde, plataforma eta elkarte bereziak eta jakinak sortu izan dira. Gainera bada ere, birpasa dezagun horietako batzuen ezaugarriak.

Zeberiori dagokionez, nekazaritzan aritzeak (baserria, lurra, abereak...), beharrian batzuei aurre egitea suposatzen zuen. Premia horien aurrean, Zeberioko komunitateak

historian zehar eraketa bereziak sortu ditu, dozenatik gora: auzolan, lorra, ordea, ganadu ermandadeak, suteen aurkako asoziazioa, hilen gastuei aurre egiteko elkarteak, auzo-eskolak eraikitzeke lurak eskaintzea, argia herrira ekartzeko kooperatiba, nekazari-kooperatiba... Zeberioke dokumentazioan asoziazionismoaz berba hauek agertzen dira erdaraz: *agregación, agrupación, alianza, asociación, consorcio, sociedad, hermandad, cooperativa...* Ohiko eta oinarritzko asoziazionismoan hiru praktika eta ohitura zeuden: auzolana, lorra eta ordea.



Ezkerrean, Suteen aurkako Zeberioke Elkarte, 1863an sortua. Eskumaldean Santa Kurtze auzoko hilen gastuei laguntzeko elkarte. 1934.



Auzolana

Auzune mailako baserritarren arteko praktika sozial zaharra da auzolana, gaztelaniaz *prestación vecinal* deitua, eta zehatzago, eremu geografiko jakin bateko guztiek guztientzat egiten duten lan komuna da

auzolana. Jakina, ezer ordaindu barik, eta guztion onerako izaten dena da. Adibideak jartzeagatik, ohiko auzolanak, batetik, bidegintza- eta andabide-arloak besarkatzen ditu, hala nola bideak garbitu, sasiak moztu,

harriak garraiatu, urak bideratu..., eta bestetik, auzoko ermitaren konponketa. Zenbait kasutan, karegintza bera ere, auzolanean burutua izan da. Dokumentuetan ere auzolanaz aipamenik agertzen da;

Lorra

Baserritar bat beharrezanean (gaixorik edo...) dagoenean, bestean arteko laguntza eta elkarkidetzari deitzen zaio lorra, hau da, guztiek batentzat egiten duten lan komuna. Gaztelaniaz, arrastre edo aportamiento dela esaten da. Mouton-en (1904, II, 158-160) hiztegian datorrenaren arabera, horrela mugatzen da kontzeptu hori: *“se designa en Vizcaya con la palabra lorra una costumbre consuetudinaria cuyo objeto inmediato es proporcionar al casero que lo necesita, algún elemento de cultivo, cabezas de ganado o materiales de construcción. El significado literal de la voz en la comarca, es arrastre ó aportamiento. Unamuno divide la lorra o aportamiento en tres clases; y utilizando la lingüística del país, las denomina zimaurre lorra (aportamiento de abono), bildots*

esaterako Zeberioako Udalak, 1902an, bideak konpontzeko eskabidearen aurrean, auzolanean burutzea agintzen du: *“que se haga la limpieza y arreglo de los caminos mediante prestación vecinal”*.

lorra (*aportamiento de ovejas*) y zur lorra (*aportamiento de madera*). *En todas ellas se manifiesta la plausible solidaridad en que viven los habitantes del territorio de Vizcaya”*. Era desberdinetako lorrak ezagutu izan dira:

- Zimaurre lorra: solorako satsik nahikorik ez eduki eta, ingurukoek gurdi bana eramatea.
- Bildots lorra: izurritea dela eta, artaldea galdu eta, besteek bildots bana doan ematea.
- Egur lorra: etxerako egurraren premian egon eta, auzokoek garraioan laguntzea.
- Buzterri lorra: baserriko ganaduren bat gaixorik eduki eta soloan aldamenekoek lantzea.

Ordea

Gaztelaniaz, *trueque*. Baserritarren artean, praktika edo ohitura kolektiboa da hau. Hurbileko hiruzpalau baserritarrek elkarrentzako, edo besteek batentzat txandaka egindako lan komuna da. Soloan sarritan, lanaren gogortasunak zein klimatologiak hala eskatzen duelako, denbora jakinean egin beharreko lanak gertatzen dira: laiaketa, arto ereitea, gari jotzea, belar batzea, e.a.

Hauek baserritar baten soloan burutzen dira, eta gero txandakatuz, besteenean. Hala diosku A. Trueba-k (1972, II, 606), orain dela 135 urte idatzitako lan batean: *“El trabajo a trueque es aquí (en Vizcaya) comunísimo: muchas de las labores, como las del layado, reclaman la asociación de la fuerza material y moral del mayor número posible de personas”*.



Bestelako asoziazio ereduak

Esan bezala, Zeberion beste asoziazio adibide dokumentatu interesgarri ere badira.

Historian zehar eragin handiko gizarte-elkarte ezberdinak sortu dira: ganadu-ermandadeak, suteak erretako baserriak berreraikitzeko elkarteak, hilen gastuei aurre egiteko elkarteak, auzo-eskolak Santa Kurtzen eta Ermitabarrin, argi-kooperatiba...

Gure herrian, azken boladan asoziazionismo modernoagoa edo, komunitatea antolatzeko modu gaurkotuak agertu zaizkigu, esaterako:

1. 1986an, Gorosituko Matxinena baserriaren inguruan etxe-erre batzen ohitura.


2. 1999an, Laura Orue Duoandikoetxea gaztearen bilaketan komunitatearen partaidetza eta inplikazioa.

3. 2002ko formatu txikiko kultura eskaintza antolatzeko rock makro-kontzertuaren ekitaldi erraldoia...

Herri-eraketa modu eta eredu hauen ezaugarriak hurrengo alean plazaratuko ditugu.



Uriondo auzoko ganadu hermandadea. 1796. urtean sortua. Lanerako idiak hilez gero, elkarri laguntza emateko elkarteak.



1924an eraiki zen Santa Kurtzeko auzo eskola, 76. zenbakia zuena. Euskaraz akatsa dago: ez da Bizkaiaren, baizik Bizkaiko auzo-ikastola.



Uriondoko hermandade-liburua



Zeberioko beste asoziazio mota: herrira argia eramateko kooperatiba, 1947an sortua.

Herri Batzarrak, informatzeko, eztabaidatzeko eta erabakitzekeo gunea

Las Herri Batzarrak siempre han sido un espacio clave para la izquierda, donde se informa, debate y decide colectivamente. Si bien es cierto que la tecnología ha reducido la necesidad de reuniones meramente informativas, pensamos que siguen siendo fundamentales para tratar temas municipales y políticos. Así lo hemos hecho en las elecciones locales o durante el congreso de EH Bildu, y así lo seguiremos haciendo durante este curso político.

Herri Batzarra ezinbesteko elementua da ezkerraren jardunbidean, ezin dugu imajinatu ezkerreko talde bat kideen presentzia eta oniritzi barik jarduten eta erabakiak hartzen. Eta Zeberion ere horrela egiten izan dugu, eta egiten jarraitzen dugu. Hala ere, teknologiak horrela ahalbidetuta, lehen hain ohikoa zen informatzeko funtzioa gaur egun ez da hain beharrezkoa, eta bileren diseinua apur bat aldatu da. Informazioa asko eskertzen da herriko gaitan, ezagutza gutxiago egoten da eta, baina gai orokorretan komunikabideak erabiltzen ditugu zeregin horretarako.

Era horretara, azken urteei erreparatuta, udal hauteskundeek garrantzi handia hartu zuten gure batzarretan. Behin gure zerrenda eginda, hauteskunde kanpainako ekitaldiak antolatuta, eta hauteskundeak eurak irabazita, 2023an beste batzar bi egin ziren, ekainean eta azaroan, eta udal gaiak zentratu zituzten bilerak. 2024an, berriz, batzar bakarra egin genuen, azaroan, eta udalaz gain, gai nagusia EH Bilduren azken kongresua izan zen. Bertan ponentzia azaldu eta mamitu zen.

2025era begira ere, beste batzar bat edo bi egitea aurreikusten da (gutxienez bat udazkenean), dauden gaien edo arazoan arabera. Garrantzitsua da bertaratzea, eta kideen arteko elkarrizketa sustatzea. Joaten garenok sarritan ikusten dugu elkar plazan edo beste leku batzuetan, baina herri batzarra berba egiteko leku zehatza da, eta aprobetxatu behar dugu aukera hori, informatzeko, eztabaidatzeko, eta beharrezkoa bada, erabakitzekeo.



Martxoaren 8an EH Bildu faxismoaren aurka eta aliantza feministak indartzearen alde

EH Bildu se sumó a la convocatoria del 8 de marzo para denunciar el avance de la ultraderecha y reforzar las alianzas feministas. Destacó la necesidad de garantizar una mirada feminista en todas las políticas públicas, defender un sistema de cuidados público y universal, y promover una gobernanza transformadora basada en el feminismo.

2025eko Martxoaren 8aren aurrean, EH Bilduk emakumeen eskubideen aldeko borrokari eutsi beharra, eta aliantza feministen garrantzia azpimarratu du. Izan ere, bazirudien urte luzeetako borroken bidez eskuratutako eskubideak atzeraezinak zirela, baina ultraeskuinaren gorakadak zalantzan jarri du inpresio hori. Gaur egun eskubide horiek mehatxupean daude, eta beraz, defentsarako eta salaketarako prestatu behar gara. Krisi egoera honi egoki aurre egingo dioten erantzun integralak prestatu behar ditugu, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Nazioarte mailan garatzen ari den joera denez, elkartasun feminista indartu behar da: tokian tokira lotutako dinamikak garatu, eta elkartasun feminista eraiki. Zeregin horiek inoiz baino garrantzitsuagoak bihurtu dira gaur egun.



Baina, bestalde, ultraeskuinaren erasoan aurreko defentsa antolatzeaz gain, aurreko urteetako ildoei ere erreparatu behar zaie, eta horrela, zaintza sistema publiko eta unibertsal baten aldeko aldarria egin du EH Bilduk. Ohartarazi du ezin dela onartu zaintza negozio bilakatzea, familiek aurrezkiak hustu behar izatea funtsezko beharrak asetzeko. Horren aurrean, EH Bilduk argi dauka: "Ez dago ezer antifeministagorik herriarren oinarrizko premiekin negoziatzea egitea baino".

Politika feministak behar dira, baina gobernantza feministaren bidez, hau da, erabakiak hartzeko moduak ere aldatu behar dira. Ikuspegi feminista ezinbestekoa da prozesu subiranistan aurrera egiteko.

Aberri Eguna: nazio eskubideen defentsan

Euskal Herria recuerda cada año al mundo en el Aberri Eguna que queremos vivir como el resto de naciones. La iniciativa Euskal Herria Batera ha anunciado que hará todos los esfuerzos para que el Estado español, siendo un Estado plurinacional, reconozca que tenemos derecho a decidir nuestro estatus político a través de un referéndum. Y para ello la colaboración de todas y todos los abertzales será condición indispensable. EH Bildu también ha señalado recientemente que ha llegado el momento de trabajar el consenso entre las fuerzas abertzales de cara al futuro político de la nación vasca.

Abertzaleok euskal nazio bat dagoela gogorarazten diogu urtero munduari Aberri Egunean. Gainerako nazioen parean bizi gura dugu eta horretarako ez dugu inolako frogarik aurkeztu behar: nazioa gara halaxe sentitzen garelako.

Aberri Egun guztiek dute testuinguru politiko jakin bat. Hego Euskal Herriari dagokionez, iazkoa Euskal Autonomia Erkidegoko legebiltzarkideen %77ren akordioarekin heldu zen: Konstituzioaren aldaketa eskatzea, bertan Espainia Estatu plurinazionala dela onartu zedin, eta ondorioz nazioen erabakitzeko eskubidea jaso zezala. Estatuaren izaera plurinazionala aitortzearen alde ezkerak ere bozkatu zuen, oinarrian aldarrikapen hori antolaketa demokratikoari dagokio eta.

Aurtengoa ere testuinguru berezian garatuko da, EAEko Legebiltzarraren gehiengoa alderdi politiko abertzalez osatua baitago. Eta Euskal Herria Batera ekimenak iragarri duenez, ahalegin guztiak egingo dira espainiar estatuak onartu dezan euskal herritarrok erreferendum baten bidez erabakitzeko eskubidea dugula gure estatus politikoa kudeatzeko. Eta horretarako abertzale guztion lankidetzaz ezinbesteko baldintza izango da. EH Bilduk ere adierazi du berriki: heldu

da garaia abertzaleon adostasuna lantzeko euskal nazioaren etorkizunari begira.

Euskal nazioaren aitortza eskubide demokratikoa dela aldarrikatzean, heldutasun politiko ukaezina lortu du abertzaletasunak, Euskal Herria Batera ekimenak, berriro ere, erakutsi duen bezala. Abertzaleok indartsu eta ilusioz beteta gaudela adieraziko dugu Aberri Egunean. Aberria gure esku dagoelako.



Elorrebieta-Goikoetxea

baserriaren ondoko zubia eta kaltzada zaharra

El puente Saldarian-larra en Elorrebieta ha sido históricamente un paso público, como lo confirman documentos de los siglos XVII y XVIII, mapas antiguos y testimonios orales. A lo largo del tiempo, modificaciones en su entorno han alterado su accesibilidad, generando controversias sobre su uso y propiedad. El análisis de archivos históricos y cartográficos demuestra que su construcción fue financiada con fondos públicos y formaba parte del antiguo camino real de Zeberio, lo que refuerza su carácter de titularidad pública, un derecho que no prescribe nunca.

Zeberio haraneko kaltzada-errepidetik ibilbidearen hasiera, Ugaoko jurisdikzioarekin bat egiten duen Arrizkozubi zubian kokatuko dugu. Hortik aurrera, Arezandiaga auzoko Panaderuena (lau solairutako eraikina), eta Etxebarri etxe bien bitartean pasatzen zen errepide zaharra, hau da, ezkerretara dagoen aldatsa igoz. Errepidea (erret bidea = camino real = calzada) edo kaltzada, Ameztikolarra herribasoaren behealdetik eta Elorrebietan dagoen Saldarian-larra deitutako zubiraino zihoan.

Beraz, hasiera baten, eta jarraian aipatuko ditugun arrazoiengatik, Ugaotik Santa



Elorrebietako Saldarian-larra zubi publikoa. 1990

Mendeak aurrera joan ahala, Ameztikolarratik pasatzen zen kaltzada bakarrik erabiltzen zen uholdeak egoten zirenean, izan ere, Zeberioko Udalak urte ezberdinetan zehar, Erniaga inguruko haitzak apurtzea agindu

Kurtzeko zubiraino, zegoen zubi bakarra Saldarian-larra deitutako zen, ez besterik. Dakigunez, XV-XVI. mendeetako Zeberioko haraneko errepidearen trazak, Arezandiaga-Elorrebieta zatiari dagokionez, hiru irizpide kontuan hartu behar zituen:

- 1) Zeberioko lurretatik bakarrik igarotzea, Ugaokoa zen Elosutik ez igarotzeko.
- 2) Erreketatik pasatzea hirutan saihestea: Zeberioko erreka biko lekutan, eta Erniaga erreka.
- 3) Erniaga inguruan Errekendiraino zeuden haitzak, apurtu ezik pasaezinak izatea.



Zeberio barru-barrutik, mapa kartografikoa. Eusko Jaularitza. 2006

baitzuen. Hemen argudiatuko duguna da Saldarian-larra deituriko zubia, zubi publikoa dela. Eta horretarako dokumentazio, mapetan eta ahozko informatzaileen lekukotasunean oinarrituko gara.

Dokumentazio historikoa. Saldarian-larra deitutako zubiaz, hiru dokumentu historiko kaleratuko ditugu:

I. 1683. urtea: Saldarian-larra zubia egiteko diru publikoa jarri zela.

II. 1754koa: *"camino real...que llaman de Saldarian-larra"*.

III. 1778koa: *"Puente de Uriondo erreca"*, eta berau Saldarian-errekako zubia da.

Dokumentazio historikoaren arabera, badakigu, 1683. urtean, Saldarian-larra deitutako zubia eraikitzeke diru publikoa jarri zela, ez pribatua. Beraz, 1683ko apirilaren 25ean, Saldarian-larrako zubiak eduki beharreko neurriez aipamen zehatza agertzen da: hamar oin begiak, 12 oin zabalerak, goialdetik manguardiak 12 bara, eta zubiaren gainean kaltzada egitea:

*"se puso/ en remate **la puente nueva que se ha de hacer en Ysasi y la/ de Zaldarien Larra** = ... Y la/ de **Çaldarien Larra** diez pies de hueco y doce pies de ancho/ y por la parte de arriba una vara de manguardia y la/ **calzada solo el largo de la puente**, acabados las dichas/ puentes para el día de Nuestra Señora de septiembre/ primero..."* (ZUA, Juan Urkiza eskribaua, 1683, 22. karp.).

Bestetik, 1754. urtean hasi ziren Erniagako haitzak apurtzen eta Erniagako harrizko zubia eraiki zen. Hauxe da udal dokumentuek erakusten dutena:

*"de hacer y ejecutar... y **construir/ en dicho regato de Herniaga un puente de cal y/ canto y su arresola**, y en este mismo paraje, más/ abajo de dicho puente, **romper un pedazo de Peña**/ con arreglo al reconocimiento que de dicha Peña hizo Juan/ Bautista de Ybarra, maestro cantero; como*

*también/ ejecutar desde el tercer castaño viejo que está/ junto a los alisos de la entrada del **ca-/mino viejo de Saldarian Larra...**"* [ZUA, Pedro Río Barañano eskribaua, 1754, 44. karp., 114. fol.]

Beste dokumentu zehatz baten, 1754koa, auzi batetik eratortzen den informazioan garbi agertzen da zubia eta goiko kaltzada, batetik, Zubialdetik Saldarian auzorako igarobidea publikoa zela, eta bestetik, uholdeak zeudenean, Ugarorako errepidea ere bai. Auzi horretan parte hartutako baten lekukoek diotenez:

*"... que es camino real sobre el puente de piedra de Elorrebayeta, y dicho puesto donde se toma para dicho Uriondo **es camino real para venir a esta Villa en tiempo de crecimiento de aguas y se nombra camino de Saldarian Larra**. Y lo que se anda por dicho puente es como atajo en tiempo de aguas bajas..."* (Matxurrena baserrian aurkituriko paperak auziak. ZUA).

Azkenik, bi hamarkada beranduago, Urkamendizelai etxearen hamarrenak kobratzea noren eskubidea ote zen argitu nahi zen auzitara eramanda. Zeberioko Patroi partzialitateak Ugaoiko San Bartolome elizaren aurka ari da. Gatazka Bizkaiko Korreximenduaren auzitegian jokatu zen. Xehetasunetan sartu gabe, arazoa argitu nahi izan zuten, inguruko, hau da, Saldariango eta Elorrebietako solo eta basoen hamarrenak nori ordaintzen zitzaizkion argitu eta gero. Eta horretarako, dokumentuetan agertzen ziren zenbait lurren mugarrizketa konpultsatuak agertzen dira. Dokumentuan zehatz agertzen da, ***"camino real antiguo hasta la cavecera del puente de Uriondo Erreca"*** (Bizkaiko Foru Aldundia, Korreximenduaren Artxiboa. 814. leg./ 3. zkia. fol.: 11i-12a).

Mapa takimetricoa


Planuei dagokienez, Ugaoko udal-aretoan 1929ko planu takimetrico bat dago (1:2000 eskalan), eta oso zehatz agertzen da kaltzada-errepidearen trazatua. Saldarian-larra



Plano General Taquimétrico de la Jurisdicción Municipal de Miravalles, con pueblos limítrofes Taquimetría y trabajos ejecutados por D. José Elúa y Goicolea. Facultativo de Minas. Año 1929. Iturria: Ugaoko Udal-Aretoa zintzilik dago.

Horko "camino real", kaltzada edo errepidea publiko zaharra da, eta "Uriondo-errea" ez da Saldarian-erreka baino, eta bertan zubia dago. Horra ba, zenbait elementu historiko eta geografiko, oso zehatz frogatzen

deitutako tokiak duen aldatza saihesteko zigizaga egiten duen errepidea oso argi ikusten da.



duenak, Saldarian-larra deitutako errepidea (= camino real, beraz publikoa), zein zubia, Arezandiagatik Elorribietarainoko kaltzada zatiaren elementu osatzaileak direla.

Argazki aereoak eta ortofotoak

Bestetik, 1955eko landa-katastroa eraikitzeko ateratako argazki aereoak (1:2500) gauza bera adierazten dute. Saldarian-larreko zubiraino, dagoen bideak jarraitzen du bai trazatuan, bai zabaleran Arezandiagatik dakarrena. Eta horrez gain, mapan agertzen den bidearen zigizaga irudiak, argazki aereoan, Z handi baten traza hartzen du. Hurrengo argazkiak, 1955ekoak, orokorretik zigizagaren detailea

erakusteko handitu dira. Bertan foru-errepidea, Elorribietako zubia eta errota.

1929ko mapak, zein 1955eko argazki aereoak ez dute zalantzarako izpirik uzten. 1990. inguruan edo, gertatu zena hauxe da: beheko argazkian bi izartxoaren artean dagoen distantzia, egun oso aldapatsua da, eta lehen aldapa hori ez zen hainbestekoa, berau saihesteko zigizaga egiten zen eta.

Norbaitek zigi-zaga hau kendu, edo ordeztu, eta solo bat ipini zuen 1990eko ortofotoan agertzen denez. Ondoren, soloa zena, lurrez edo bete egin zen, eta gainean txabola bat eraiki zen. Hurrengo pausua ingurua hesiaz itxitea izan zen, baina kaltzadako pasoa libre



2012an aurkituriko hesia, jabetasun pribatua idatzia.

Ahozko informatzaileek diotena

Hainbat zeberioztar dira kaltzadaren bide zehatza nondik nora joan izan den eta zubia publikoa dela baieztatu dutenak. Laburtuz, ahozko lekukotasuna eman didatenak dira: Arezandiagako Antonio Ordeñana Rekakoetxea (hilda), Elorrebietako Paulino Ugarriza Orueta (Goikoetxea baserrian jaiotakoa), Bizente Cordon errotakoa,

Ondorioak

Elorrebieta auzoko Saldarian-larra deitutako lekuan, bertatik kaltzada-errepidea pasatzen zen. Ez ahanzi, zubia bera oraindik mantentzen da, eta publikoa dela ezaugarritzeko hiru arrazoi mota plazaratu ditugu: dokumentazio historikoa, mapak eta argazkiak, eta ahozko informazioa. Azkenik, dokumentazio historikoak Udalak ordaindutako zubia dela frogatzen dute.

egonez. Orain, aldaketa hauen ondorioak hiru dira; batetik, kaltzada lehen baino aldapatsuago jarri dela. Bestetik, zubian hesia eta jabetza pribatu ipini dela. Eta hiru, lehen bertatik pasatzeko eskubidea zuenari ukatu egiten zaiola.



Elorrebietako zigi-zaga.

Zeberioko landa-katastroa. 1995eko Ministerio de Hacienda agindulako argazki aereoa.

Anizeto Gorostiaga 'aitari' entzunda eta Bartolo Goikuria (Arbilduburu baserriko jabea). Horrez gain, Saldarian auzoan, badira hamaika auzokide, ondiño bizirik, Santa Kurtze eskolara oinez kaltzada horretatik eta zubi horretatik ezelako oztoporik gabe, egunero joan-etorrian pasatzen zirenak.

1683. urtean zubia eraikitzen gastatutako diru publikoak herri-kaltzada edo errepiderako pasalekua izatea zuen zentzua. Are, 12 Ha. inguru duen Ameztikolarra herribasoa, beraz, izaera publikoa duena, lehen eta oraindik orain, bertan dagoelarik. Ez dauka zentzurik, ordea, solo edo baso pribaturako zubia Udalak ordaintzea.

Behin betiko.

El 11 de enero se celebró en Bilbao una manifestación multitudinaria en apoyo a los presos. Según la asociación Sare, no hay excusa para no aplicar la normativa legal a los presos vascos, y si se hiciera, muchos de los 118 presos actuales podrían volver directamente a casa, mientras que el resto cumpliría su condena en condiciones mucho más relajadas, en tercer grado y con la posibilidad de ir a casa. Las perspectivas son buenas, y nos corresponde a nosotros y nosotras hacer todo lo posible para que así sea.



Urtarrilaren 11n manifestazio erraldoia egin zen Bilbon presoen alde. Sare elkarteak esaten zuenez, ez dago aitzakiarik araudi legala euskal presoek ez ezartzeko, eta hala egingo balitz, gaur egun dauden 118 presoetako asko zuzenean etxera itzuliko lirateke, eta besteek oso arinduta pasatuko lukete zigorra, 3. graduari, eta etxera joan ahal izanda. Perspektibak onak dira, eta geuri dagokigu indar guztiz horren alde egitea.

ehbildu Zeberio

-  ehbilduzeberio
-  @ehbilduzeberio
-  ehbilduzeberio
-  @ehbilduzeberio
-  EHBZeberio
-  @ehbilduzeberio
-  EH Bildu Zeberio +34 633 29 58 76
-  zeberio@ehbildu.eus
-  zeberio.ehbildu.eus

